Nafarrorako egile ofiziala:
ONENA Tailerrak
Zaldubia Poligonoa, IRURITA (BAZTAN)

deceuninck©
Behar duzuna, PVCn



*1956garren urteko argazkian, Iruritako lehen Dantzari Taldea*

Argazkia: Tiburcio Almenar-ek utzia


BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak:
  - Luis XV – Regence
  - Luis Felipe
  - Napoleon
  - Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. kma, Tfnoa: 45 23 74
IRURITA - BAZTAN





MENDI HOTELA



DONAMARIA'KO BENTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA



INFORMAZIOA:

Ezkalo Jauna
Tfnoa: 45 15 18
Doneztebe

**LESAKA:**
- Bittiria karrikan, pisua alokatzen da 2. solairuan. Osorik mobleztatua. 25.000 Pzta. hilabeteko.

**ARANTZA:**
- Tokirik airosonean, luxuxko pisua. 167,76m². 1.400.000 Pzta. + IVA
- 95,56m²ko pisuak, 1.100.000 Pzta.+ IVA

Bortziriak, Bertizarana, Baztan eta Malerreka aldean, baserriak eta lur-eremuak

- ❒ Pertsiar katuak: xuriak, xuri-beltzak, xuri-grisak... begi gorristak. Hiru ar eta kateme bat. Pedigree.
- ❒ Siamdar katuak, begi-urdinak
- ❒ Pirineoko ardi-zakur zuriak 6 hilabetekoak. Pedigree. 35.000 Pzta.
- ❒ Euskal ardi-zakurrak, pirineoko ardi-zakurrak, Dogoak, Pointer... salgai.

Doneztebeko Ezkalo Etxean, kotxetako asiento-funden likidazio osoa. %50eko deskuentoa. Ez galdu aukera.

KULTUR ZIKLOA 91

E·T·X·A·L·A·R

**Maiatzak 12, Igandea**
5etan, "GOONIETARRAK"
Bideo-emanaldia
**Maiatzak 17, Ortzirala**
6,30etan, "MENDI NEKAZARITZA: ETORKIZUNAREN KLABEAK"
Mahai-ingurua
**Maiatzak 18, Larunbata**
4etan, IV. ETXALAR IPUIN LEHIAKETAren sari banaketa
Haurrendako berendua
11etan, ANJE DUHALDE
**Maiatzak 19, Igandea**
12etan, HERRI KIROLAK:
Bera eta Narbarteko taldeak
Jubilatuen bazkaria
"DAVID COPPERFIELD"
Bideo-emanaldia

Nafarroako Gobernua
Etxalarko Udala



# SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi




- **MEKANIKA:** ibilgailu edo kotxeen mekanika, traktoreak, soldadura...
- **OIHANZANTZA edo FORESTALA**
- **NEKAZARITZA eta MEKANIKA**
- **OSTALARITZA, PUERIKULTURA**

Bi urtez. Eskolak, jantokia eta logelak ere badauzka.

**Praktikak:**

Aste bat Eskolan eta bertzea, lantegietan praktikak egiten.

**Nor matrikula daiteke?**

OHO edo EGB egin duena, nahiz eta "Graduado Escolar" ez izan.

**EUSKARAZ eta ERDARAZ**



# BIDE BERRIAK URRATZEN HASTERA GOAZ!!

Barnetegia

Euskaltegia

Euskal Txokoa

Albergea

Areto egokiak txarlak, hitzaldiak etabar emateko...




Izan zaitez laguntzaile!!

**Matxinbeltzenea**

zabaltzen

BAZTAN

# Azkeneko hormateak kalte haundiak sortu ditu kiwietan

## Kiwi Baztanen, produkzioaren % 95a galdutzat jo dute

JOSEBA I.

Kiwi Baztan-etik adierazi dutenez, hormaren ondorioz kalte haundiak izan ditu sasoi honetako kiwi produkzioak. Guti gorabehera %95a galdutzat emanten da, 80 mila kilo edo... guzira 12 milioitako galera izan dezakeelarik. Kalte horiek gainditzeko, laguntza eskatzeko asmoa dute instituzio ofiziletan.



Nekazariak, laino ilunak dituela bere gainean errepikatze batetan bihurtzen ari da, baina... benetan egoera larria dutela. Oraingoan ere, behi-esnearen prezioa jautsiko delakoaren susmoan daude.

### Nafarroaren Eguna

Eguraldiak ez lagundu arren, baztandar ugari ikus zitekeen Baigorrin ospatu zen bestan, adiskideekin eguna pasatzeko asmoarekin.

Maiatzaren batean , bi aldeetako herrien elkartusuna sendotzeko, Elizondon ospatu zen Gazteen eguna. Bertan ikus zitekeen, kalejira, pilota partiduak, bazkaria eta kantaldia Tapia eta Leturiarekin.

### Pantxo eta Pello

Kantaldiak arrakasta haundia izan zuen, frontoira 800-1000 pertsona artean bilduz. Entzuleek kantu zahar eta berri "goxatzeko" aukera izan zuten.

**UB/BE**



**Felix S . Ustarroz Grazenea,** edari-saltzailea

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2.Federico Valencia Leoz 3. Javier Iturralde Prieto 4. Juan M. Pedrosa Lopez 5. Antonio Bengoetxea Iturriria 6. Begoña Sanzberro Iturriria 7. Antonio Irigoien Sarratea 8.Pedro A. Zapata Zaldua 9. Joaquina Bengoetxea Orquin 10. Santiago Ibarra Elizalde 11. J.J. Etxeberria Azkarraga 12. Alejandro Cordoba Aleman 13. Norberto Subizar Camietea

**HB**



**Martin Garde Saharrea,** L.L.ko langilea

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2.Begoña Etxandi Juanikotena 3. Marcos Irigoien Saiz 4. Mª Jesus Pernaute Bengoetxea 5. Bittor Elizagoien Etxegarai 6.Juan Migeltorena Bengoetxea 7. Eduardo Ustarroz Leizagoien 8. Martin Gamio Iparragirre 9. Juan Aleman Iribarren 10. Jose M. Azurmendi Murgiondo 11. Mª Plaza Zugarramurdi 12. Mikel Alzuart Zaldain 13 Bittor Jauregi Aleman

**EA**



**Fco. Jose Oiartzabal Irigoien,** medikua

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2. Miguel A. Adin Franzesenea 3. Marcos Irigoien Irungarai 4 Luis Arregi Etxepare 5. Mª Asuncion Irigoien Iparrea 6. Miguel A. Goienetxe Etxebere 7. Juan Mª Zaldain Maisterrena 8. Santiago Ibargarai Telletxea 9. Pedro Barberena Agerrebere 10. Rosa Mª Bertiz Iriarte 11. Pedro Mª Gamio Gaztelu 12. Margarita Urdaniz Alkasena 13. Mariano Izeta Elizalde

**EE**



**Rafael J. Olaizola Amorena,** Narberriko langilea

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2.Laureano Calvo Zugarramurdi 3.JoseM. Iturralde Ilarragorri 4 Fco. Torres Mendikoa 5.Domingo Irungarai Alkasena 6.Roberto Mindegia Mindegia 7. Jose Mª Perez Franzesena 8. Jose Motos Izeta 9. Ignacio Garmendia Galarregi 10. Mª Visitacion Mendiburu Belzunegi 11.Jose Mª Amiano Mariñelarena 12. Joseba Gaztelumendi Bikondoa 13. Ramon Arozarena Sanzberro

**AB**



**Juan Meoki Maia,** merkataria

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2. Antonio Isuskiza Lizarazu 3. Jose Ramon Arregi Igoa 4 Mª Pilar Cordoba Saharrea 5.Miguel Bajo Montilla 6. Francisco Javier Iriarte Iriarte 7. Mª Luisa Cordoba Saharrea 8.Tiburcio Sarratea Etxenike 9. Jose Aizpurua Descarga 10. Micaela Inda Jimenez 11. Benito San Millan Somalo 12. Pedro Mª Esarte Muniain 13. Nicolas Inda Ansalas

**PSN/PSOE**



**Pedro J. Perez Uriz,** langile autonomoa

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2. Salvador Etxeberria Agerre 3. Clemente Trevejo Perez 4 Anastasio Nagore Garralda 5.Mª Teresa Artazcoz Valencia 6. Juan Luis Perez Franzesena 7. Eduardo Fleta Flou 8. Miguel Angel Errotaberea Etxepare 9. Paulino Garcia Garcia 10. Fco. Javier del Castillo Diaz 11. Santiago Martin Garcia 12.Benito Pruaño Rodriguez 13. Juan Jose Lopez Garcia

## Xorroxin Colin-ekin bildu zen

Joan den 30ean elkartu ziren Nafarroako Barne kontseilaria, Aladino Colin eta Xorroxingo kideak. Colinek agertu zuen proposamena mankomunitate bat bultzatzearena izan zen, Baztan, Bertizarana , Malerreka eta Bortzirietako udalei Nafarroako Gobernuak proposamen hau indartzeko eskatuko dielarik

## Bidea Aritzakunera

Sumusukobordaraino eginen dute bidea, 22 milioi gostarioarekin. Iñarbegi eta Beartzun ere, elkartu eginen dituzte, horretan 14 milioi gastatuz.

## Irakasle segituko

Mugaireko BBB edo BUPeko irakasleak Lekarotzen segituko dute. Hala ondorioztatzen da Nafarroako Gobernuarekin berriki izandako juizioan; epaitegiak irabazi egin bait dute.




## Emakumeak Erratzun Musean txapeldun

Mus Txapelketaren irabazle suertatu ziren Ana Mª Arriada eta Maribel Ariztia. Txapelketak 2 hilabete iraun zuen eta 29 bikoteren artean jostatu zen. Bigarrenak, Jesu Mª Dendarieta eta Eugenio Iturburua.

Udarako prestatzen

Sobran dauden kiloak arintzeko asmoz, 21 emakume erratzuar larunbatero goizeko 7etatik 8etara gimnasia egiten dute. Minitorea Begoña Durruti.

## Arkupeak-en kultur aktibitateak

Apirilaren 27tik maitzaren 5era, bertsolariak, mus-txapelketa, artisau erakusketak, herri kirolak, elkartasun besta, musika, hitzaldia, Elizondoko abesbatza, egunero zinema etabarez bete-betea.

ARROPA DENDA
MERCERIA
FANTXIKE
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO
CERVANTES
HELVETIA SEGUROS
Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

FZ
FOTO ZALDUA
Argazkiak, Bideoa, Markoak
ELIZONDO TF: 58 04 91
DONEZTEBE TF: 45 03 64

JATETXEA
Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
Neska eta mutilendako udaberriko arropa arinak
Pultsera eta belarritakoak (Zilarrezko, larruzko...)
Eskeintza zabala teletan...

OSKORRI
LIBURUDENDA
Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

ERLOJU eta BITXI DENDA
ARRIETA
KIROL TROFEOAK
Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO

FOTO MENA ELIZONDO
Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa
Tfnoa.: 58 01 55
Santiago 40
ELIZONDO
Eta orain, zure koloretako argazkiak
ORDU BATEZ ERREBELATUAK ditugu

BEATRIZ
Lurrin denda
SANTIAGO 53 - Tfnoa: 5802 83 - ELIZONDO

ZUGARRAMURDI

# Herri Urratserako laguntza eskeiniko dute herriko gazte eta zikiro-erretzaileek

KORO ETA MARGARI



Urtero bezala "Herri Urrats"-erat zerbait aportatzeko, berriro ere gure zikiro erretzaileak eta gazteak ganen dire beren lana eskeintzerat.

Lana haundia izanen da hainbertze jendearendakoz zikiro-jatea prestatzen baina gustura egiten delarik, lana beti errexagoa izan ohi da.

## Zugarramurdi Espainiar Telebistan

TVE hasi da "España mágica y misterosa" izeneko programa egiten. 2. kapitulua izanen omen da "Brujería en Euskalerria" eta zenbait elkarrizketa egin ondoren Zugarramurdiko lezeetara hurbildu dire Durangoko antzerki talde batekin akelarre bat filmatzeko. Hiru egun pasatu dituzte grabaketak egiten eta seguraski uztailaren 7an gaueko 10etan eta bigarren kaletik eskeiniko da.

**Akelarre**



**Jesus Agerre Indaburu**, 36 urte, Arotza

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2.Severo Fagoaga Gortari 3. Miguel Mª Mendiburu Indaburu 4. Lazaro Dainciart Iribarren 5. Estefania Bergara Mendiburu 6. Martin Mª Rodriguez Zubiri 7. Idoia Telletxea Goñi

URDAZUBI

# Maiatzaren 5ean 60 urte ezkondu zirela

ALIZIA OLAIZOLA



*Migel eta Zelestinak 60 urte dute ezkondurik*

Ez Urdazubin eta ez bertze tokietan ez da aunitzetan ematen bikote batek 60 urte egitea ezkonduak, "Diamante ezteiak" ospatuz. Bikotea, Migel Sagastibeltza, Leitzakoa eta Zelestina Gaztañaga, Huizikoak osatzen dute.

1942an Huizitik etorri ziren beren bortz haurrekin, eta orain Tejeriko auzoan bizi dira. Migelek 81 urte ditu eta Zelestinak 80 eta osasun ona omen dute biek.Bortz ume, 11 biloba eta 9 birloba dituzte. Udan nahi dute familia osoa elkarreratu egun bat hautatuta. Zorionak !!!

## Bide konponketak

Udalak legar latza eman ondoren, Larrainta, Landibar eta Iribereko auzotarrak ari dira bideak moldatzen.

**Independiente**



**Fco Iribarren Garate**, Merkataria

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2.Fco Varela Santesteban 3. Angel Bengoetxea Suhas 4. Pedro Jose Tomasena Mihura 5. Juan Ramon Otegi Laurenzena

## SARA

# Euskal Telebistaren errepikagailua paratu dute Suhalmendin

OLHAIN ELKARTEA

Saran, Suhalmendi deitu mendiaren kaskoan, jarri berria dute Euskal Telebistako emankizunen zabaltzeko errepikagailu bat. Hemendik aintzina, Saratarrek preziatzen ahalko dituzte Hegoaldean bezala ETBko programak bainan horretarako Pal-Secamdun tresna beharrezko da eta hogeitazazpigarren kanala behar da erabili. Xehetasunak galde tresnerietan jabe direnei.

### Arbasoen urratsetan zehar

Iragan Apirilaren 23an, Blot mediku ikerlari ospetsuak eskaini zaukun, Gaztetxeak galdeturik, mintzaldi-erakusketa bikain bat.

Aita Joxemiel Barandiaranek kurritu bideetan barna badabil hau ere eta ikerketa asko eginik dauzka jadanik Iparraldean. Argazkiz osatutako montaje bateri esker aurkeztu zizkigun Mendibe, Okabe inguruetan aurkitutako harripil eta hobiak baita ere Saran, Suhalmendiko kromlekak...

Denbora berean datorren Uztailaren 7 eta 8an iragan beharrak diren ikerketa lanetan parte hartzera konbidatu dauku: harriz



egindako bide bat ikertuko du bere laguntzaileekin eta hori gure herrian! Agian interesatuak hurbilduko dira beregana egun hortan.

## ARESO

JUANA MARI

Urtero bezala, Aresoko andreak Pazko larunbatean neguaren bukaera eta udaberriaren hasiera ospatu zuten afari goxo batekin. Orain dela zazpi urte hasitako ohiturak, gero eta andre gehiago biltzen ditu. Gaua poliki hasi bazen ere, eltzeak eta botilak hustutzen ziren neurrian, algara haundiagotzen joan zen eta txanpainarako... abesbatza elegatea osatua zegoen. Halere, Txingurriren laguntzak giroak eskatzen zuen maila mantentzen lagundu zuen ederki, goizeko oilarrak jo arte. Nor daki ez ote diren 4 urtaroak ospatzen hasiko. Dena den eskerrak gizonei afaria prestatu eta serbitzeagatik.



**HB**



**MikelNieto Baranda**, 39 urte, Sarrioko langilea.

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2.Domingo Etxarri Mujika 3.MariaTrinidad Miranda Funes 4. Jose Etxarri Mujika 5. Josefa Marzol Tolosa 6. Catalina Etxarri Mujika 7. Ramon Alguero De Val

**GIA**



**Juan Pellejero Mugerza**, 40 urte, mekanikoa.

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2. Mauro Baraibar Garmendia 3. Joaquin Saizar Telletxea 4Luis Gereño Marzol 5. Miguel Belaunzaran Goikoetxea 6. Martin Caballero Lasarte 7. Antonio Zabaleta Caballero

## LEITZA

# Eskoletako zortzi etxebizitzak saltzera aterako ote diren edo

Udalak bere ondasun batzuk eskutik uzteko asmoak dauzka. Ez daki zer egin medikuaren etxearekin, baina Arkiskileko elektra zentrala subastan ateratzeko erabakia hartua du, eta orain eskola gainean dauden zortzi etxebizitza horiek errentan jarri edo salduko ote dituen edo.

Gauza da bere aurrekontuan, Udalak sartu dituela iadanik urte hontarako *"19 milioitako sarrerak, maixuen etzebizitzen salmentagatik"*. Maixuek urteetan zehar irabazitako eskubidea dela diote, derecho adquirido esaten dena. Eta gainera, maixu-maestra asko gaur hemen eta bihar han dabilzkitela. Guraso Elkarteak dionez, eskolak beretzako behar ditu lokala horiek, irakaskuntza 18 urte arte eraman ahal izateko. Alkatearen ustetan, etxe bizitza horiek karga bat dira herriarentzat, gaur egun maixuek badute beren soldata ederra eta ez da bidezkoa pribilejiorik edukitzea eta eskola zabaldu nahi bada, hori Iruñeako Administrazioak ikusi beharko luke non eta nola.

Herriaren ondasunak saldu edo ez: eztabaida hor dago, hari franko korapilatzen dira. Gaiak badu mamia, baina lekurik ez, aipamen bat egiteko besterik.

**EA**



**Juan Mª Oronoz Zabaleta**, 42 urte, Administraria.

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2. Luciano Olano Villabona3. Gregorio Sagastibeltza Sagastibeltza 4. Jose I. Barberia Etxarri 5.MªCarmen Agirre Zubitur 6. Juan T. Gogorza Saralegi 7. Iñaki Sagastib. Azpiroz 8. Candido Azpiroz Zabaleta 9.Felipa Aierdi Baraibar 10. J.M. Sagastib. Iturrarte11. Ramon Lizarraga Iraola

**HB**



**Josetxo Zabaleta Zabaleta**, 38 urte, Sarrioko langilea.

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2. Mª Ascension Aleman Zabaleta 3. Miguel Illarregi Elberdin 4. Jose Erbiti Arrizurieta 5. Jose L. Huarte Azpiroz 6. MªAngeles Sestorain Zabaleta 7.Bittor Lizarraga Lazkano 8. Jose Mª Azpiroz Lasarte 9.Isidro Otermin Sagastib. 10. Bittor Ipagragirre Lukanbio 11. Mª Cruz Sagastib. Iturrarte

**UIL**



**Silvestre Mª Zubitur Goñi,** 34 urte, merkataria.

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2. Gerardo Caballero Azpiroz 3. Beatriz Zabaleta Zestau 4 Rafael Mujika Astibia 5.Juan Lana Guembe 6. Miguel A. Ariztimuño Canflanca 7. Jose Mª Perurena Sukunza 8. Roberto Sukunza Zabaleta 9. Lorenzo Zubitur Zestau 10. Fermin Azpiroz Martinikorena 11.Jose Rubia Hernandez

## Luisenbordako Meteorologi zentrua

### EGURALDIAREN GORA-BEHERAK NEURTZEN EGUNORO, AZKEN LAU URTEOTAN



Uste ez den lekuetan bada jendea isil isilik lanean.

Gorriztaranen, "Luisenbordako" atarian badago metereologi zentru txiki bat jarrita. Eta bertan biltzen dira eguraldiaren gora-beharak goizero: tenperaturak, 24 ordutan botatako euriak edo elurrak, m²ko enbudo baten bitartez, eta haizea nondik jotzen duen eta ze indarrez. Datu hauek biltzea eta telefonoz Diputaziora pasatzea goizeroko eginbeharra da Luisenbordako etxekoandrearentzat (edo berak ezinean, senarrak edo erraínak...).

Egunero lan honi esker, Iruñean Naparroa guztiko metereologi mapa bat egin ahal izaten dute. Guri denori gero gustatzen zaizkigun datu interesgarriak, berriketarako bederen. Baina horretarako norbaitek arretaz neurtu, jaso eta eman egin behar. Hortan ari da azken hiru urte terdi hontan, goizero.

**Konparazio batera:** Joan den apirila hortan euri eta elur asko egin du Leitzan, baina lehengo urteko apirilan bi aldiz euri gehiago bota zuen eta, ez pentsa, orduan ere 4 aldiz elur egin zuen, eta bitan zuritu. Noski, aurtengo negua oso osorik hartuta, 23 egunetan egin du elurra, 12 aldiz zuritu, eta aurreko neguan lau aldiz, apirilan lauak. Apirilak konparatzen, aurtengoan 6 gauaz zero gradu azpitik egon da. 90ko apirilean 3 gauaz. Eta 89ko apirilan zazpi gauaz zero gradu egin zituen.

Dena den, azken hiru negu hauetan, -8 izan da hotz haundiena (88ko azaroan), eta azaroa hortan bertan 21 gradutara igo zen termometroa. 89ko errege biharamunean ere -7 (zero azpitik) egin zuen. Hiru urteotan ezagutu den berorik haundiena 88o irailean, 36 gradutarainokoa.

ANTTON ERKIZIA

## GOIZUETA

# Jende gutxi eta giro hotza aurtengo krossean

ESTEBAN AROZENA

Inoiz baino jende gutxiagorekin eta oso giro hotzarekin apirilaren 28an burutu zen kross herrikoiaren irabazlea Migel Angel Mujika gipuzkoarra suertatu zen, erreztasun osoz gainditu zituelarik senior mailan parte hartu zuten beste hamahiru laisterkalarik. Emakumeen artean berriz, Juli Sagastibeltza leitzarrak irabazi zuen hirugarren urtez jarraian, honek ere inolako arazorik izan ez zuelarik garaipena lortzeko. Senior maila honetan, Juantxo Apezetxea eta Esther Tomasena izan ziren helmugara ailegatutako lehen goizuetarrak.

Beste bost kategorietan, ondorengo hauek izan ziren lehen postuetan helmugaratutakoak:

Zaharretan, Saturnino Madeson; 9-10-11 urtekoetan Julen Belaunzaran, Pablo Miranda, Amaia Lujanbio eta Agurtzane Belaunzaran; gazteetan, Jabier Rekondo, Asier Olaizola eta Elena Oiartzabal; 7-8 urtekoetan, Ibai Zubiri, Unai Bakero, Naiara Juatorena, Jone Perurena; 12-13-14 urtetakoetan, Garikoitz Etxeberria, Dani Narbarte, Mikel Belaunzaran eta Rakel Iarza; 4-5-6 urtekoetan, Iban Loiarte, Unai Eskudero, Izaro Goikoetxea eta Naiara Arozena.

Egia esateko aitortu beharra dago, pixkanaka itzaltzen ari den kandela argia dirudiela gure herriko krossak. Orain dela 12 urte indar haundiz hasi bazen ere, azken edizio hauetan ikaragarri jeitsi da partaidetzaren kopurua eta kalitatea, eta horren ondorioz ikusleen artean ere ez du interes gehiegirik sortzen. Hortaz gain eguraldi txarrak eta Retegi eta Galartzaren arteko partiduak eragina izan zuen aurtengo edizioan hain argi nabaritu den beherakada horretan.



*Julia Sagastibeltza Leitzarra izan zen garaile emamukezkoen mailan* (ANTTON argazkia)

**HB**



**Miguel J. Lekuona Salaberria**, 35 urte, Osakidetzan.

**ZINEGOTZI-GAIAK:**

2.Mª Pilar Untxalo Salaberria 3. Luis Ignacio Lujanbio Etxeberria 4. Esteban Arozena Mitxelena 5. Joxe Jabier Ansa Zubieta 6. Maite Alsua Eskudero 7.Lazaro Apezetxea Perurena 8. Francisco J. Huizi Loiarte 9. Miguel Salaberria Eskudero

## Zerrenda bakarra

Ondorengo lau urte hauetarako alkatea eta kontzejalak aukeratzeko botoa emateko orduan ez dute buruhauste gehiegirik izango goizuetarrek HBren zerrenda bakarra aurkeztu bait da . 22tik 63 urte bitarteko 12 herritarrek osatzen dute HBren kandidatura, 2. eta 6. postuetan bi emakume aurkitzen direlarik. Azken 8 urte hauetan zinegotzia izan den Migel Joxe Lekuona azaltzen da zerrendaburu bezela.

Drogeria MOLINERO




Paperak
Pinturak
Moketak
Drogeria

Tfnoa: 63 02 40
Eztegara19
BERA




GAZTAÑAGA
Taberna
Bokadilloak eta pintxoak
Tfnoa:610708 - LEITZA

BIZIKLETA SALGAI
❒ karreratakoa
❒ hagitz ona, 35.000 pzta
❒ Tfnoa: 450614
ELGORRIAGA

EROSLE
LESAKA
EROSKIn zegoen jenero eta promozio berdinarekin eta...
Deskuentoak sozioentzat
Bittiria 67 – Tfnoa:637264

## EZKONTZAK

**Pablo Goienetxe Ariztegi** eta **Mª Asun Iparragirre Arburua,** Etxalarkoak, Apirilaren 20an.

**Jose Jabier Irastorza Zubieta** eta **Mª Belen Urdaniz Etxeberria**, Lesaka eta Berakoa, apirilaren 20an.

**Josetxo Elizondo Eratsun** eta **Mª Jesus Etxekolonea Urrotz,** Urrotz eta Beintza-Labaiengoa, apirilaren 20an.

**Oscar Jose Judez Etxebertz** eta **Beatriz Hita Etxandi**, Olague eta Narbartekoa, apirilaren 17an.

**Jose Ontsalo Aldabe** eta **Mª Concepción Lezea Huizi**, Areso eta Berastegikoa, apirilaren 27an.

## JAIOTZAK

**Itziar Mitxelena Gamio,** Arantzan, Apirilaren 15ean.

**Raphaël de Castro Magalhaes,** Saran, apirilaren 18an.

**Imanol Ibarrola Goñi**, Doneztebeн, apirilaren 24ean.

**Ainara Mikelarena Subizar,** Legasan, martxoaren 24ean.

## HERIOTZAK

**Juan Iturbide Goikoetxea,** Igantzin, Apirilaren 29an, 84 urte.

**Jose Joakin Gaintza Zubieta,** Etxalarren, Apirilaren 7an, 88 urte.

**Betti Zunda,** Saran 88 urte.

**Xan Chapartegui,** Saran, 82 urte.

**Antonia Telletxea Bengoetxea,** Legasan, apirilaren 20an, 88 urte.

**Custodia Sukilbide Bertiz**, Narbarten, apirilaren 22an, 91 urte.

**Evarista Sagues Goñi**, Beran, apirilaren 27an, 67 urte.

**Juan Carlos Mutuberria Bengoetxea**, Beintza-Labainen, apirilaren 23an, 21 urte.

**Agustin Salaberria Sara**, Donezteben, apirilaren 25ean, 66 urte.

**INAXIO Tailerra**

**Moto Salmenta eta Konponketa**

Etxerri – Tfnoa.: 45 22 92
**– IRURITA**

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono hontara
45 20 35
eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.
Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

RADIO BIDASOA

expert

**OFERTA:**
**TELEFUNKEN SUPER-VHS**
**BIDEO-KAMARA**
**178.000 pztatan.**

Kanttonberri 1, Tfnoa: 63 03 77 BERA

**BORTZIRI**

Itzea 4, behea - BERA
Tfnoa: 63 10 91

* Asistentzia teknikoaren zerbitzua
* T.B., Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
* Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

# AHVren etorkizuna zalantzan?

## *Ensidesarekin eratuko duen holding-ak kezka haundiak sortu ditu*



Estatu espainolak Europako Merkatu Batuan sartzeko erabakia hartu zuenetik, ekonomi sektore guzietan berrestrukturaketa planak hasi ziren ematen. Hastapenean erraten zena zera zen: irekitzera zihoan merkatu berri haundi baten aintzinean derrigorrezkoa zela, barnean zeuden bertze estatuetako merkatuetan konpetitzeko, berrestrukturaketa sakonak burutzea.

1983tik gaurdaino, siderurgia arloan berrestrukturaketa prozesua gelditu gabe joan da egiten, lanpostu aunitz desagertuz Estatu osoan. Administrazioak dirulaguntza galantak eman dizkie enpresei, inbertsio moduan, aintzinera ateratzeko eta prozesu hoiek burutzeko.

Duela urtebete inguru zurrumurru ugari kaleratu ziren AHV eta Ensidesaren etorkizunaz. Batzuk Ensidesak AHV bereganatu nahi zuela erraten zuten, bertzek berriz, biek elkartu eginen zirela,...

Badirudi orain berri zehatzagoarik badugula. Apirilaren lehenengo astean jakin genuen prentsaren bitartez, Gobernuak bi siderurgia integralak, Ensidesa eta AHV bilduko dituen holdding bat sortuko duela eta proiektu hori gauzatzeko Jose Manuel Garcia Hermoso hautatu duela.

### Berrestrukturaketa prozesua

Siderurgia integral moduan funzionatzen zuten lantegiak hiru ziren estatu mailan; bat Saguntun (Valencia), *"Altos Hornos del Mediterráneo"*, bertzea Asturies-en, *"Ensidesa"*, eta azkenik, bertzea Bizkaian, *"Altos Hornos de Vizcaya"*, *"Laminaciones de Lesaka"* azken honen barnean dagoelarik.

Saguntun, labe garaiak itxi ondoren, laminazioa bakarrik geratu zen martxan, 3.700 izatetik, 1.990 langilerekin gelditu zen.

Ensidesak, 1983an, 22.000 langile zituen, aurrejubilazioaz eta Enplegu Sustapenerako Dirukutxaz baliatuz, langile kopuru haundia gutitu du eta

1.991ko urtearen hasieran 15.600 geratzen ziren; 6.200 Xixongo lantegian eta 9.400 Avileskoan.

AHVn ere berdintsu gertatu da, sistema berdinak erabili dira langilegoa guttitzeko. 1986an, enpresak dirulaguntzak lortzeko, berrestrukturaketa plana aurkeztu zion Gobernuari eta honek 117.000 milioi eman zizkion. Kontutan hartu behar da Administraziotik diru kopuru haundiak hartu arren, AHV enpresa pribatua dela.

Langile kopuruari dagokionez enpresaren helburuak, 1. koadroan ikus daitezke.

2. koadroan, AHVko lantegi bakoitzaren langile kopurua ikus daiteke.

3. koadroan ikus daiteke 1987ko apirilean AHVk Lesakako Enpresa Komiteari aurkeztu zion planean proposatzen zuena.

Langilegoa jeisteko, lehen aipatu ditugun sistemetatik aparte, bertze modu batzuk erabili ditu enpresak. Diru kopuru baten truke 90 langile inguru joan dira jada lantegitik. Horregatik,1986tik honat 400 langile fijo guttiago daude Laminazioetan.

Bertzalde, azken urte hauetan langile ebentualak hartzen ditu batez ere eta banaz bertze, urtean zehar 200 langile aritzen dira era honetara. Badirudi enpresaren helburuetariko bat langile fijoak ebentualez ordezkatzea dela.


Zalaingo faktorian ia 500 langilek egiten dute lan



Legasako faktorian 150en bat ari dira

*Langile kopuruaren eboluzioa, AHVko faktoria guziak kontutan hartuz (*1)*

| 86-12-31 | 87-12-31 | 88-12-31 | 89-12-31 | 90-12-31 |
|---|---|---|---|---|
| 8.600 | 7.700 | 7.370 | 7.000 | 6.590 |

*Lantegiz-lantegi, enpresaren helburuak langile kopuruari dagokionez (*2)*

| Barakaldo-Sestao-Antsio | Etxabarri | Lesaka | Denetara |
|---|---|---|---|
| 3.790 | 1.050 | 1.750 | 6.590 |

*Lesaka-Zalain-Legasarako, enpresak 1987an Komiteari aurkeztutako plana (*3)*

| 86-12-31 | 87-12-31 | 88-12-31 | 89-12-31 | 90-12-31 |
|---|---|---|---|---|
| 2.040 | 1.980 | 1.920 | 1.850 | 1.750 |

## Eta orain holding hori...

Nolako ondorioak ekarriko ote digu aurkeztu berria duten imentzio honek. Era ezberdineko erizpideak entzun eta irakurri ditugu egun hauetan, batzuk diotenez, batez ere nagusiek, ona izanen da bi enpresentzat, bakoitza bere aldetik ibilita ez dagoela etorkizunik eta...

Sindikatuen artean denetatik egon da. Batzuren ustez ondorio onak ekar ditzake eta bertze batzuren ustetan, kezkagarria da etorkizuna; batez ere lanpostuen iraupena kontutan hartuz.

Bertzalde, egia da informazio gehiegirik ez dutela ematen, ez enpresek ez administrazioak, TTIPI-TTAPAk ere ahaleginak egin ditu, AHV-ek duen prentsa arduradunarengandik eta bertze iturrietatik informazioa lortzen, baina ez dutela berri gehiagorik erantzun ohi dute.

Eta hemen, Baztan, Bertizarana, Malerreka, Bortzirietan kezka gehiena sortzen duena zera da: ea guzi honek Laminazioetan nolako eragina izanen duen, batez ere lanpostuak mantentzeko garaian. Datuek diotenez orain arteko planek batez ere lanpostuak gutitzeko izan bait dira. Nolanahi ere, erantzuna geroak emanen du.

PELLO ASTIZ

# Eskualdeko kirol koordinatzaileari ez zaio oraindik kontraturik egin

*Garbiñe Elizaintzinek oposizioz atera zuen plaza orain dela urte bat*

Garbiñe Elizaintzin Gartzaindarrak urte bat Baztan, Leitzaran, Malerreka eta Bortzirietako eskualdeko kirol koordinatzaile plaza atera eta, oraindik orain kontratua siñatu gabe dauka. Malerreka eta Bortzirietako Udalak hasi dira bere kontratuaren siñatzea eskatzen. Bortzirietan bortz herriak eskatu dute eta Malerrekan bertze hamar udalek.

Garbiñen egoera hobekiago ezagutzeko berarengana zuzendu gara.



Garbiñe Elizaintzin gartzaindarra

**Zergatik ez zara hasi lanean?**

Baztango alkateak egin behar du kontratua eta orain artio ez du egin (Baztango alkatea da kirol mailan eskualdeko zuzendaria).

**Eta zergatik ez duzu kontratua egin?**

Hori berak erantzun beharko du, nahiz eta gainontzeko Udalek behin eta berriz eskatu eta erran kontratua egiteko, ez du kasurik egin eta egoera honetan badaramat ia urte osoa.

**Eta orain bertze lan batetan ari zara?**

Momentu honetan langabezian nago, eta ez dut ulertzen ahal, nola oposizioaz ateratako lanpostu subentzionatua (Nafar Gobernuak ordaintzen du soldata guztia, hemengo Udalei nire postuak ez die sosik suposatzen) ez den betetzen. Pentsa ezazue joan den urtean postu hau betetzeko milioi t'erdi pezeta gibelat joan zirela kontratua ez egiteagatik eta aurten bertze horrenbeste gertatzen ari da.

**Kirol alorrean zer suposatzen du kirol koordintzailerik ez egoteak?**

Azken urtean eskualde mailako aktibitateak sekulako beherakada izan zuten, 38 aktibitatetik 8ra jeitsiz. Honek erran nahi du azken urte honetan haurrak batez ere kaltetuak izan direla, aktibitate askotan parte hartzerik ez bait dute izan.

Bertze aldetik Nafar Gobernutik heldu den subentzio guztia (5 milioi t'erdi) zintzilik aurkitzen da eta arriskua dago galtzeko. Baliteke kirol talde askok subentzio hauetatik jasotzen zuten diru laguntza aurten galtzea, afera ez bada konpotzen bederen.

**Nafarroan horrelakorik gertatzen al da?**

Ez, Nafarroa osoan Baztan-Bidasoa eskualdea bakarrik dago kirol koordinatzailerik gabe. Lanpostu hau eskualde osorako izanik, hemengo 25 Udalek daukate errespontsabilitate osoa eta lehen bait lehen erantzun beharko dute, ez badute nahi milaka haur kirol aktibitate aunitz egiteko aukerarik


Kirol aktibitateak sekulakoa beherakada izan du



gabe gelditzea, joan den urtean bezala.

**Eta Udalek zer egiten dute?**

Baztango udalak ez du borondaterik agertzen, eta bertze Udaletako ordezkariak saiatzen ari dira gauza konpontzen (plenotan akordioak hartzen ari dira), baina hala ere urte bat galdu da. Tema honek ekarri dituen ondorioak aztertzeko modukoak dira, eta uste dut oraindik ez dituztela ongi aztertu eta birplanteaketa bat egin.

**Arazo hau konpontzea hain zaila al da?**

Dirua emana izanez, kontratua sinatzea paper bat betetzea eta firmatzea bertzerik ez da, beraz ez dago inungo zailtasunik. Gogoak eta borondatea behar da, eta hau ez da fabore bat egitea, baizik eta oposizioak gainditu dituen pertsona bati zor zaion lana ematea.

**Zer eskatzen diezu Udalei?**

Hitza betetzeko, eta kirola egiten ari diren pertsona guztiei gorde behar zaien errespetoa gordetzea.

MATTARI ALTZUARTE



## Txirrindulari denboraldiaren egitaraua prest dago

**Kadetetan**

Lesakan hasiko da denboraldia hilaren 26an Beti Gaztek antolatuta; Uztailan, 2an Donezteben Errekak antolatuta, 21ean Elizondon(CC Baztandarra) eta 27an Beran(Gure Txokoa); abuztuan 4ean, Beran(CC Beratarra), 10ean Leitzan eta 25ean Lesakan eta denboraldia bukatzeko Irailaren 7an Oronotzen(CCBazt.)

**Jubeniletan**

Maiatzan, 4ean Beran(GT), 11an Iruritan(CC Irurita) eta 18an Beran(CCB); Ekainaren 15ean Lesakan (BG), Uztailaren 7an Elizondon(CCB) eta Irailaren 28an Lesakan (Basurde)

**Afizionatuak**

Uztailaren 10ean Lesakan (Bas.) eta 28an Elizondon.

## Hamabostaldiko jokaldiak



**Berako** Gure Txokoa futbol taldea

Iazko denboraldian Gipuzkoako Erregionaleko 1. mailara igo eta kategoria aisa mantendu dute. Datorren denboraldian, Preferentera igotzea espero dugu.



Kirolarien desplazamenduen arriskuak.

Azken aldi honetan kirolariek istripu nahiko izan dituzte. Arriskua kentzeko Udal eta kluben arteko plangintza(konbenio taxi, autobusekin) bat egitea ez zen batere gaizki egonen.

# Hain nekaturik nago!

Gizonezkoak alkoholikoak egin ohi dira, beraien bizitzaren bertze arloetan ase ez den menpekotasun afektiboa bete nahian, gehiegizko eta gaizki bideratutako beharrak sortzen direnean.



Emakumezkoaren kasuan, gehienetan alkoholismora eramaten dion bideak ezintasun eta desegokitasun sentimenduak dira, bizitza arrunta, monotonoa, zapuztua eta sozialki debaluatua eta alizienterik gabeko batez horniturik.. Zentzu gabeko eta, okerrago, etorkizunik gabeko izate baten jabe izateak, bere proiektu eta ilusioak egia bihurtzeko inolako aukerarik gabe, ateak irekitzen dizkio alkoholari, sentsazio aldaketa baten bila.

Egoera honi gehitu eginen zaizkio bere buruarekiko duen estima baxua eta dependentzian loturik gelditzea, edatearen esklabu bihurtuz, bakardade eta hutsunearen hatzapar iluntetatik ihes egin ahal izateko. Baina edatea, inondikan ere ez da soluzioa.

ADIMEN OSASUNERAKO TALDEA (Burlata)



Galeria Komertzialak, Colon Pasealekua 31, IRUN

ILEA ONGI ZAINTZEKO HOBEKI EZAGUTU BEHAR DA
FLOREN
ILEAPAINDEGIA
Kosmetologi kabinetearen helbide berria hauxe da:
Tfnoa: (943) 619278

ZUNZARREN
Gestoria
•Allianz Ras Aseguruak
•Bidai Agentzia
Tfnoa: 45 22 93
Amaiur Gaztelua 2
31700 ELIZONDO

INFORMAZIOA:
- Nominak
- Aseguro Sozialak
- Lan-kontratu bonifikatuak
- Enpresa berrien sortzea
- Diru-laguntzak
- Errenta Deklarazioak
- Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.
ASESORIA FISKAL ETA LABORALA
KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ
LESAKA:
• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404
IRUÑEA:
• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

LUR APAL
MEKANOTERAPIA ZENTROA
BIZKARRA
ARTRITISA
ZAINAK
STRESA
Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 637011 LESAKA

# Parte hartu gurekin

EUSKO ALKARTASUNAri botoa emanda Nafarroako Udal eta Herrikontseilu ugaritan parte hartzen duzu, bai eta bere lana eta eraginkortasunagatik ezaguna den Talde Parlamentario batean ere, legegintzaldi honetan mila ekimen baino gehiago aurkeztu dituena, Nafarroaren modernizazio eta aurrerabidearen aldeko gure lanaren adierazgarri.

EMAN BOTOA

EA

**eusko alkartasuna**

**Gure lana, gure Herriaren alde**



# MERKATU TTIKIA

## Etxebizitzak

•**Bikote** euskaldun batek baserri merke bat bilatzen du antolatzeko, lur piska batekin. Tfnoa: 07-33/59540627

• **Senar-emazte** euskaldunak baserria terrenoekin bilaka ari da, ongi ordainduz. Tfnoa:451518

• **Baztanen liburudenda** transpasoan. Urteko salmentak demostragarri. Tfnoa: 592245 (egunez), 450730 (arratsetan).

## Lana

• **Hiru neska** etxalartar gara eta udan edo asteburuetan lan eginen genuke haurrak zaintzen edota etxeko lanetan Etxalar edo inguruetan. Interesatuak Merkatu Ttikira idatzi.

•**Baztanen edo Dantxarinea aldean**, etxeko lanetan, komertzioren batean edo jatetxetan lana egingo zuten bi neska uztaila edo abuztuan. Deitu 453344 eta 453174 tfnora.

• **Emakumea astegunetan lanak egiteko prest.** Dei 63 12 35 tfnora.

## Salerosketak

•**Kanpin denda bat** salgai. 4 lagunentzakoa. Deitu 450883 tfnora.

• **Ahuntz-buru** disekatua salgai 25.000 pztatan. 0,70 metro altura eta 0,50 metrotako adarrak. Tfnoa: 615040.

• **Pirineoko mastin** txakurkumeak salgai, arras ederrak eta politak. Tfnoa: 948-453312.

•**Belarra** igotzeko tresna "Huracan" salgai, egoera ederrean. 75.000 pzta. Tfnoa:451518.

•**Ordeñadora** bat 7.000 pezetatan salgai. Tfnoa: 451518 (Doneztebe).

•**Labadora**, sukalde, frigorifikoak erosiko nituzke. Tfnoa: 451518

•**Erleak** eskeintzen ditugu. Etxe paretan daudenak. Tfnoa: 637278.

•**Ordenadorea** salgai. Inves PCX 10, 3,5eko bi disketerakoa, inprimagailua, WordStar eta mahaia, berri berria.90.000 pzta. Tfnoa:634126, gauez.

•**Mountain bike** bigarren eskukoa erosiko nuke. Tfnoa: 634165.

•**Bi txakurkume** eta **bi ahuntz** bere antxumeekin eskura ohituak saltzen ditut. Tfnoa: 504492.

• **Frigorifiko** "Fagor" ona salgai, 20.000 pztatan. Tfnoa: 610794 Leitza.

## Harremanak

•**Oitzko** Bittorentzat: Zorionak eta egun on bat pasa dezazula espero dugu. Zure emaztea eta semearen partez, muxu bat.

•**Berrotako** Iñigorentzat. Mutiko aluzinante bat zara. Zure atzetik nabil. Musu bero bat.Ikusi arte.

•**Lekarotzko** Mari Natirentzat. Baztango neska politena zara. Zure gorputzak erotzen nau.Ikusi arte.

•**Zubietako** Jaionerentzat: Ezagutu zintudanetik ezin dut lorik egin. Zure ametsetako L.O. (Victoria).

•**Nobeto** eta **Juliorentzat**: Zuek zarete Lesakar hoberenak.Lasartetarrak.

•**Laboraleko** Raquel Etxabarrirentzat: Neska polita zara.Maite zaitut.IA.

•**Arraiotzko** Ana Lidiari, Axierren partetik. Musu haundi bat.

•**Arantzako** neskarik sinpatikana. Nor da? Beatriz Taberna noski. Zure klaseko lagun zirikia nauzu. A.L.

•**Irungo** Iñigorentzat, zu zara nire bizitzako mutila. Aurrera segizazu beti bezala. Aunitz maite zaitut. P.P.

•**Berako** Lumirentzat bere Elizondoko amodioaren partetik. Ea enrrollatzen garen. Maite zaitut. Blanca.

•**Etxalarko** Edurne Ansalarentzat. Zure ipurdi pottoka hori gustora ukituko nuke. Heldu den igandean Atxaspi ostatuan espetzen dizut. Zugarramurdiko mutil bat.

•**Leitzako** Iñaki A. bertako neska bat maitemínduta daukazu. Musu bat.

•**Arantzako** Mikel Leizarentzat. Maite zaitut, ia enrrollatzen garen. Ni Legasako Sara naiz. Muxu haundi bat biok dakigun tokian.

•**Montoiu:** Ni baino gazteagoa zarelako bertzela zurekin ezkonduko nintzateke. Monse.

---

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: ..............................

..............................

..............................

..............................

..............................

*ttipi-ttapa*

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

---

*ttipi-ttapa* ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK ..............................

HELBIDEA ..............................

HERRIA ..............................

*ttipi-ttapa*

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188


Maite duzunari
eutsi,
NAFARROA
HERRI BATASUNA



# TALDE-LANEAN, INDARTSU

EAJ PNV